

Ezin-en hurrenkera aditz egitura perifrastikoetan

Egilea: Asier Fernandez de Gorostiza Hormías

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Tutorea: Mikel Martinez Areta

2019-7-19

Aurkibidea

1. Sarrera	1
2. <i>Ezin</i> gramatiketan	1
2.1. <i>Ezin</i> egungo euskaran	1
2.2. <i>Ezin</i> euskararen historian	4
3. Corpusaren ezaugarriak	6
3.1. Corpusaren mugak	6
3.2. Corputa aztertzeke metodologia	7
4. Corpusaren azterketa	9
4.1. <i>Ezin</i> XVI .mendean	9
4.2. <i>Ezin</i> XVII. mendean	12
4.3. <i>Ezin</i> XVIII. mendean	14
4.4. <i>Ezin</i> XIX. mendean	16
4.5. <i>Ezin</i> XX. mendean	18
4.6. Azterketa euskalkika	20
4.6.1. Mendebaldeko euskara	20
4.6.2. Nafar-lapurtera	23
4.6.3. Nafarrera	24
4.6.4. Zuberera	24
5. Ezeztapenarekin harremanetan	25
5.1. Oinarriak	25
5.2. <i>Ezin-Alag-An</i> -ren inguruko hurbilpena	26
6. Ondorioak	28
Laburdurak.....	29
Bibliografia	29
Webgrafia	30

1. Sarrera

Lan honen helburua *ezin* partikulak aditz perifrastikoekin elkartuta XVI. mendetik XX. mendera izan duen hurrenkera aztertzea da. Mendebaldeko euskaran, nafarreran, nafar-lapurteran eta zubereran¹ aztertu da hurrenkera, mende bakoitzetik euskalki bateko testu bat ikertuz. Horrela, *ezin* partikularen hurrenkera perpaus nagusietan zein mendeko perpausetan aztertu da. Euskal tradizioan, *OEH*-ak azaltzen duen moduan, *ezin* partikulak aditz perifrastikoetan ez du hurrenkera berdina izan hizkera guztietan, ezta mende guztietan ere. Lanean *OEH*-ak esaten duena sakonduko da eta erlijio prosan Ezin-Alag-An hurrenkeraren agerpena XVIII. mendean kokatuko da, nafarreran. Horretaz aparte, *ezin*-en beste bi hurrenkeren (Ezin-An-Alag eta An-Ezin-Alag) garapena aztertzen da aipatutako mendeetan zehar. Gaian sakontzeko, horrela antolatu da ondorengo lana: 2. atalean *ezin* aditz perifrastikoetako ikuspegi sinkronikoa eta diakronikoa aurkeztuko da. 3. atalean corpusaren ezaugarriak eta aztertze metodologia azalduko da. 4. atalean mendeka eta euskalkika bildutako datuak aurkeztu, interpretatu eta euskalkika analisisia egingo da. 5. atalean bildutako datuak Iker Salaberriren (2018) ezeztapenaren lanarekin uztartuko dira. 6. atalean, azkenik, esandako guztiaren ondorio batzuk azalduko dira.

2. *Ezin* gramatiketan

2.1. *Ezin* egungo euskaran

De Rijk-ek (2008: 647) esaten duen moduan, euskaran ezintasuna bi modutan adieraz daiteke: *ez* partikula (1a) eta *ezin* partikularen bitartez (1b):

(1) a. *Behiei ez dakiokete deusere eman hoberik.* (Dv)²

b. *Arbola onak ezin fruitu gaiztorik eman dezake.* (Lç)³

Hala ere, bi formek sintaktikoki ez dute berdin jokatzeko. *Ezin*-ek, De Rijk-en (2008: 647) arabera, ez du derrigorrez aditz laguntzailearen jarraian egon behar eta

¹ Euskalkien banaketa Zuazoren (2008) arabera egin da.

² Hualde & Ortiz de Urbina arg. (2003: 309) lanetik ateratako adibidea.

³ De Rijk-etik (2008: 647) ateratako adibidea.

tartean beste osagai bat txertatzeko aukera du (2a). *Ez* partikulak, berriz, gramatikala izan dadin, beti aditz laguntzailearekin batera agertu behar du (2b-c):

- (2) a. *Inork ezin bi nagusi zerbitza ditzake.* (Lç, TB)⁴
- b. **Inork ez bi nagusi zerbitza ditzake.*
- c. *Inork ez ditzake bi nagusi zerbitzatu.*

Bestetik, Hualde & Ortiz de Urbina (2003: 309) lanean *ezin* partikula bi aditz modurekin konbina daitezela adierazten da: ahalerazko formekin (3a) eta indikatiboazko formekin (3b). Bi aditz modu hauek ez dute eraginik *ezin*-en hurrenkeran:

- (3) a. *Ezin ditut ikusi - Ezin ikusi ditut.*
- b. *Ezin ikus ditzaket - Ezin ditzaket ikus.*

Altubek 1929an (*apud* Hualde & Ortiz de Urbina 2003: 309) dioenez, semantikoki *ezin* indikatiboarekin edo ahalerarekin elkartzeak ez du zentzu bera. Bere aburuz, *ezin ikusi ditut*, indikatiboarekin, 'no puedo verlos' esanahiaren baliokidea da eta *ezin ikusi ditzaket*, ahalerarekin 'no soy capaz de verlos' esan nahi du, testuinguruak ekintza gertatzeko ezintasuna eragingo balu bezala.

Ezin-ek gaur egun, hurrenkera forma ezberdinak ditu. Lardizabalek (1856/2006: 347) dio⁵ *ezin*-ek aditz laguntzailearekin eta aditz nagusiarekin elkartzeko hiru aukera dituela:

- (4) a. *ecin det jan.*
- b. *ecin jan det.*
- c. *jan ecin det.*

Gaur egun, *ezin* partikularen kokapenak aldakortasun handia du. Hurrenkerari dagokionez, hizkeratik hizkerara eta hiztun batetik bestera ezberdina da. De Rijk-ek (2008: 655-659) bitan sailkatzen ditu gaur egungo hurrenkerak: alde batetik, ekialdeko hizkerek erabiltzen duten *Ezin-An-Alag* (5a) eta bestetik, mendebaldeko hizkeretan egun erabiltzen den *Ezin-Alag-An* (5b):

⁴ De Rijk (2008: 647) lanetik ateratako adibidea.

⁵ Lardizabal (1856/2006: 347): *El verbo ecin y el adjunto no tienen un lugar fijo, sino que puede variarse su colocación: ... siempre que ecin se anteponga al artículo det u otro.*

- (5) a. *Ezin egundaino garaitu zuten bere etsaiek.* (Ax, Guero)
 b. *Ezin nuen nire maitalea baztertu.* (Atxaga, Obab)

Ezin-en hurrenkerarekin jarraituz, perpaus motaren arabera ere aldatzen da, perpaus nagusiek eta mendeko perpaus askotan ez dute hurrenkera berdina. De Rijk-ek (2008: 655-659) dio mendeko perpaus ezberdinen arabera ere forma bat edo bestea orokortuta egon daitekeela. Horrela, mendebaldeko hizkeretan perpaus nagusietan *Ezin-Alag-An* ordena zabalduena den bitartean (5b), erlatiboazko mendeko perpausetan *An-Ezin-Alag* hurrenkera aurki daiteke (6a) edo *-la* atzizkia duten mendeko perpausetan *Ezin-An-Alag* hurrenkera (6b). Ekialdeko hizkeretan, ordea, *Ezin-An-Alag* forma lekukotzen da gaur egun, perpaus nagusian (6c) zein mendeko perpausetan (6d):

- (6) a. *Hartu ezin dudan kotxea.*
 b. *Lortu zuen zorionak ezin iraun zezakeala, egin zuen ametsa ezin biur zitekeala egia.* (Mde, HaurB⁶)
 c. *Haren behakoa gehienek ezin ahantzia dute.* (Larz, Ipuin eta Ixtorio⁷)
 d. *Eta hobendunari ezin jazarri dena, norbeiti halere pikoa sartu gabe ez baitagoke,...* (Larz, Ipuin eta Ixtorio)

Horrez gain, aspektu markaren inguruan *EGL*-k (1993: 423) dio aspektu burutua markatzeko hizkeraren arabera mota ezberdinak daudela. Mendebaldeko hizkeretan, adibidez, *izan* aditza behar da (7a), eta aspektu ez burutua *izan* aditzik gabe (7b). Beraz, *ezin*-ekin doan aditz nagusiak *-tzen* aspektu ez burutuaren marka (7c) ezin du hartu eta horren ordeaz *-tu* partizipioaren forma hartzen du (7d). Bukatzeko, Hualde & Ortiz de Urbinak (2003: 311) dioten bezala, *ezin* geroa markatzeko mendebaldean forma berria *ezingo* forma da (7e) eta azkenaldi honetan oraindik berriagoa den eta gutxitan erabiltzen den forma: aditz partizipioari geroaldi atzizkia gehitzea *-ko*, *ezin*-i erantsi beharrean (7f):

- (7) a. *Ezin ikasi izan dugu*

⁶ Laburdura guztiak *OEH*-koak dira.

⁷ *OEH*-n lan honen laburdurarik ez dagoenez, lanaren izen osoa jartzea hautatu da eta berdina egingo da egoera hori errepikatzen den guztietan.

- b. *Ezin ikasi dugu*
- c. **Ezin ikasten dut*
- d. *Ezin hartu dut*
- e. *Ezingo dut hartu*
- f. *Ezin utziko dut*

Azkenik, erregimenari dagokionez, *EGO*-ak (1995: 533) dioen bezala, *ezin*-ek bi aukera ditu erregimenaren kontuan: bata, laguntzen duen aditzaren erregimenaren arabera jokatu (8a), eta, bestea, beti *nork* saileko aditz batekin elkartuta (8b). *EBE*-k lehenengoa hobesten du, nahiz eta biak onartuta egon.

- (8) a. *Ezin naiz jantokira joan*
- b. *Ezin dut jantokira joan*

2.2. *Ezin* euskararen historian

Euskararen historian, *ezin* aditz perifrastikoekin elkartzean 3 konbinazio desberdin lekukotu dira: An-*Ezin*-Alag (9a, b), *Ezin*-An-Alag (9c, d) eta *Ezin*-Alag-An (9e, f). Euskal tradizioan hurrenkera bakoitzeko perpaus nagusiak zein mendekoak bilatu dira:

- (9) a. *..., ezin utz detzake niholatako manieraz, eta eztitu ere utzi behar.* (SP, *Filotea*)
- b. *Eta eskusadu ezin leite iakin ezagaiti.* (Cap)
- c. *Bada ark ezin egingo duena, egizu zuk, ta damuko eztezu.* (Cb, *Ejertzizioak*)
- d. *Gizonak su inhar bat eskuan ezin jasan badeza, ...* (SP, *Led*)
- e. *...baiña baserriko bakartasunean ezin dira umotu.* (Lauax, *Azalpenak*)

f. ...aitortu bear degu gizonak eziñ dezakela erakutzi uts egiteko bildur gabe. (Ag, Sermoiak)

Ezin-Alag-An hurrenkeraren analisiarekin hasteko, *OEH*-ak⁸ dio forma hau oso goiz lekukotzen hasten dela euskal literaturan, Lazarragaren *Artzain Liburua*-ko kanta batzuetan eta *Bertso Bizkaitarrak* lanean lekukotzen hasten da. Edonola ere, neurkerak baldintzatutako testuingurutik kanpo ez da lekukotzen. Lan honetan, Ezin-Alag-An hurrenkeraren garapena erlijio prosan aztertuko da eta lehenengo agerraldiak zein euskalkitan eta zein mendetan aurkitzen diren aztertuko da.

Ezin-An-Alag-ri dagokionez, euskal tradizioan gehien erabili izan den forma dela lanean zehar erakutsiko da. Nafar-lapurteran, nafarreran eta zubereran forma zabalduena eta erabiliena izan da XX. mendera arte. Horrekin batera, mendebaldeko euskaran An-Ezin-Alag-rekin txandakatzen dela eta ez bata ez bestea ez dela nagusitzen ere erakutsiko da.

Aurreko §2.1. atalean aipatu den bezala, gaur egun, *ezin* indikatiboazko eta ahalerazko adizkiekin elkar daiteke, baina Azkuek (1925: 774)⁹ lanean euskal tradizioan *ezin* partikularekin sortutako formak indikatiboaz gain ere subjuntiboarekin sor daitezkeela adierazi zuen (10):

(10) ...zeinda akudidu ezin leien ainbat bider. (Cap)

Azkenik, An-Ezin-Alag hurrenkera ez dago oso lekukotua, oro har, mendebaldeko euskaran XIX. mendera arte erabiltzen da batez ere. *OEH*-ak dioenez¹⁰, bizkaieran lekukotzen da bereziki, eta gehienetan *metri causa*. Lan honetan, ezaugarri hori ere

⁸ *OEH*: Con el auxiliar siguiendo inmediatamente a ezin (ezin da(iteke) joan, etc.), es muy poco frecuente al Norte antes del s. XX; ...Al Sur, aunque aparece ya en Lazarraga y es la construcción habitual en BBizk, no ocurre así en la mayoría de los textos antiguos; en el s. XVIII sigue siendo bastante poco usual, pero su utilización va aumentando considerablemente desde principios del s. XIX.

⁹ **1003.** El auxiliar transitivo forma con esta característica dos clases de flexiones: de indicativo y subjuntivo.... **1009.** Constituyen dos grandes grupos: del auxiliar intransitivo y del transitivo. La potencialidad del primero tuvo en otro tiempo por característica te, lo mismo que su pareja el auxiliar intransitivo de indicativo, Ain andia izan LEITEALA que pudiera ser tan grande (Capan., 146-2), al baleite 'si se pudiera 24 (Ibid. 26-10). Hoy es fósil, tanto en este sentido como en el de futurición, que parece por cierto una extensión espontánea de la potencialidad.

¹⁰ *OEH*: Menos frecuente es la construcción de part. (o rad.) + ezin + aux (joan ezin da(iteke), etc.), aunque en Capanaga es la construcción más habitual, y se encuentra tbn. en en una canción vizcaína citada por Oihenart, BBizk (37), Argaignarats (DevB 30), Moguel (CC 174), V. Moguel (burua jaso ezin dek, 46), fray Bartolome, Iztueta (C 48, en verso), Goyhetché (252), Arrese Beitia (AmaE 253), Xenpelar (158), JanEd (I 134) y Udarregi (24), en bastantes casos tal vez metri causa. Más habitual es este orden cuando se trata de oraciones subordinadas.

aztertuko da eta erlijio prosan aurkitu dira agerraldiak, errimak baldintzatutako testuingurutik kanpo.

3. Corpusaren ezaugarriak

3.1. Corpusaren mugak

Aurretik azaldu bezala, mende bakoitzean lau euskalkitako testuak hautatu dira *ezin*-en hurrenkera aztertzeko. Azterketarekin hasi aurretik, aipatu beharra dago mende bakoitzetik testu bakarra aukeratzeak mugak ezartzen dizkiela analisi eta ondorioei. Hala ere, erlijio prosazko testu esanguratsuenak eta lekukotasun gehien dituztenak aztertu izan dira lan honetan.

Mugarik garrantzitsuena aipatutako hurrenkera desberdinak euskalki guztietan lekukotzeko testuak aurkitzea izan da. XVI. mendean zubereran eta nafarreran lekukotasunik ez da aztertu, beraz, ezin izan da mende horretako bi hizkeren datuak konparatu.

Horrekin batera, ikerketan igarri da zubereran eta nafarreran *ezin* partikularen erabilerak aldatu izan direla mendeak igaro ahala. Euskalki horietan XIX. mendean *ez* partikula *ezin* partikula ordezkatzeko hasten da aditz perifrastikoetan *OEH*-ak¹¹ esan bezala, *ezin* aditz perifrastikoetako elkarketen lekukotasunak gutxituz. Beraz, XX. mendetik aurrera ez dago ia iker daitekeen adibiderik. Horregatik, lan honetan bi euskalki horietako testurik ez dago XX. mendeari dagokionez.

Azkenik, ahozko literatura ez da zehazki aztertu, baina erlijio prosa ikertu denez, genero honen barruan aurki daitezkeen elkarrizketak eta galdera-erantzunak kontuan izan dira; hortaz, horiek ere zenbaketaren barruan daude. Zenbaketatik kanpo testuen barruan topatu diren olerkiak, kantikak edo metrikak eragindako edozein zati baztertu da. Horiek, lehen esan bezala, ez baitute lan honetarako hurrenkerearen datu fidagarririk eskaintzen.

¹¹ *OEH*: Tr. Empleado en todas las épocas y dialectos, aunque su frecuencia disminuye algo desde el s. XIX; ésto se da especialmente al Norte, en relación con el uso creciente de ahal, tbn. en oraciones negativas. En estos dialectos parece conservarse mejor en oraciones con el auxiliar elidido.

3.2. Corpora aztertzeko metodologia

Lan honetan *ezin* partikula aditz perifrastikoekin sortutako elkarketak aztertu eta zenbatu dira. Beraz, ez dira aditz jokatu gabeeekin (11a) zein aditz sintetikoekin (11b) elkartutako formak aztertu:

(11) a. ...*ezpañetara zetorkion nazka ezin ezkutatu*. (Mde, *HaurB*)

b. *Erromarrak! Esan baarik ezin nagoke*. (A, *Latsibi*)

Era berean, indikatiboarekin, ahalerarekin zein subjuntiboarekin¹² elkartutako formak kontuan izan dira. Ikerketan zehar ikusi den moduan, aditzaren moduak ez baitu hurrenkeran aldaketarik sortzen.

Azterketari begira, *ezin*-en hurrenkerak perpaus nagusietan eta mendeko perpausetan aztertu dira. Mendeko perpausak ez dira sakonki aztertu, ezta mota bakoitzean sailkatu ere, baina zenbatzeko orduan Iker Salaberriren (2018) sailkapenaren irizpideak erabili dira. Beraz, kontuan hartu dira mendeko perpaus guztiak¹³ eta menderagailu batek baldintzatutako perpausak (12a-d):

(12) a. ..., *non zure borondateak ezin geiago paira baitezake*, ... (SP, *Gudu*)

b. *Ezen haren esentia gure adimenduak ezin konprehen*di dezake. (Lç, *Kateximea*)

c. ...*zegaiti nik ezin anzitu neidi anibat denpora on deretxadan gauzea*. (Lazarraga, *AL*)

d. ...*ze ezin ezagutu bere leike*. (Zv, *Serm*)

Bestalde, koordinatutako formak (13) ere zenbatu izan dira, baina behin bakarrik kontatu dira.

(13) ...*ezin ikusi ta ezin aitu daikena berze niores*. (Le, *Serm*)

§2.1. puntuan azaldu bezala, *ezin*-en kasuan geroaldiko marka bi elementuk har dezakete. Kasu batean, *ezin*-ek laguntzen duen aditzari atxikitzen zaio (14a); bestean,

¹² Azkuek (1925:774) lanean aipatutako ahalerazko subjuntiboa.

¹³ Euskaltzaindiak (2005) egiten duen sailkapena.

berriagoa den forma, *ezin*-ek berak hartzen du atzizkia. Kasu horiek ere kontuan hartu dira.

(14) a. ...*ezin iraungo dabela gogo edo propositu santubetan*. (Mg, CO)

b. ...*beste pekatu rik estaldu ezingo dabena*. (Mg, CO)

Ezin izan egiturarekin ere elkarketak ditu (15a-c). §2.1. atalean aipatu den bezala, *izan*-ek aspektu burutua sortzen duela azaldu da. Adibide hauek *izan* aditz nagusia izango balitz bezala sailkatu da. Horregatik, *izan* aditzarekin elkartutako forma guztiak zenbatu izan dira. Honekin batera:

(15) a. *Au ezin izan leiteke*. (Zav, Serm)

b. ...*bestelan ezin izan zeinkeen, arimako bakia*. (Mg, CO)

c. ...*niholere eziñ izan dezakegula*. (He, Gudu)

Egin-ekin sortutako formak (16a, c) eta aditz lokuzioak (16b) dituzten *ezin* formak ere zenbatu dira (16b):

(16) a. *Eta berzela ezin egin daite*. (Lç, Kateximea)

b. ... *edo iños damu izan daben, zerren pekatu egin ezin eban,...* (Cap)

c. *Iru gauza oneek bagarik penitenzia ezin egin zinaike*. (ZV, Serm)

OEH-ak esaten duen moduan¹⁴, *ezin*, *ahal*-ekin ere elkar daiteke. Ez da oso ohikoa baina euskalki guztietan eta mende gehienetan agertzen da adibideren bat. Forma hauek ere kontuan izan dira eta zenbatu dira (17a, b):

(17) a.*eze ezin kontadu al leidi, gizonak gurearren bere...* (Lazarraga, AL)

b. *Aingeruri buruak emon bere ezin al leikion modu bat geiago ta geiago adierazoteko deuskun amudioa,...* (Zav, Serm)

¹⁴ OEH: *Junto con ahal se encuentra en Leizarraga, Lazarraga, Tartas (Arima 71), Maister (I 13, 2), Astarloa, Jaureche (174), Arrue (May 73), Iturzaeta (Azald 166), Lizardi (BB 82), Otxolua (96) y Erkiaga (Arran 145).*

Bukatzeko, galderetan zein harridurazko perpausetan agertzeak ez du hurrenkeran eraginik (18a, b), beraz, hauek ere zenbaketaren barruan daude.

(18) a. ..., *bada bestelan ezin ondo aitu ginai?* (Mg, CO)

b. *Begirik ezin altxa, hitzik ezin egin dirot!* (Dv, LEd)

4. Corpusaren azterketa

Ikerketa honetan XVI. mendetik XX. mendera arteko testuak¹⁵ erabili dira. Laginak esanguratsuak izan daitezten, testu genero bakarreko testuak hartu dira gehienbat: erlijio-prosazkoak¹⁶. Erlijio prosak sintaxi finakoak eta ulergarriak aztertzeke orduan eredu sintaktiko bakuna eskaintzen du, erlijioak batez ere molde sintaktiko errazak erabili dituelako erlijioaren zabalkundearen mesedetan. Horri esker, *ezin*-en hurrenkeraren garapena ia genero bakarrean aztertu da mende ezberdinetan zehar.

Hala ere, badira erlijio prosatik at aztertu diren testuak, hala nola, XVI. mendeko Lazarragaren *Artzain liburua*¹⁷ eta *Refranes y Sentencias* atsotitz bilduma.

Dialektologiari dagokionez, ikerketa 4 euskalkitan oinarritu da: mendebaldeko euskaran, zubererari, nafarrerari eta nafar-lapurterari. Beraz, mende bakoitzean 4 euskalkietako testu bana aztertu da. Horregatik, garapena argiago ikus dadin, testuak mende mende banatuta ikertu dira §4.1. ataletik §4.5. atalera ikus daitekeen bezala.

4.1. *Ezin* XVI. mendean

Ezin-en hurrenkerari dagokionez, XVI. mendeko testuetan ikertu diren datuek erakusten dutenez, orokortuen dagoen hurrenkera *Ezin-An-Alag* da, nahiz eta *An-Ezin-Alag* ordenak ere badituen lekukotasunak. Horrela, *Ezin-An-Alag* hurrenkera *Artzain*

¹⁵ Euskal Klasikoen Corpusen bidez aztertu dira testu guztiak bi testu izan ezik. Juan Mateo Zabalaren *Sermoiak I* eta Aguirre Domingoren *Sermoiak* Klasikoen Gordailuko bertsioak erabili dira.

¹⁶ Erlijio prosazkoak: Leizarragaren *Kateximea*, Beriainen *Dotrina kristioarena euskaras*, Axularren *Guero*, Kapanagaren *Dotrina*, Tartasen *Onsa hiltzeko bidia*, Haranederren *Gudu izpirituala*, Maisterren *Jesü-Kristen imitazioa*, Lizarragaren *Sermoiak* (66. sermoira arte) eta *Dotrina*, Juan Antonio Moguelen *Konfesio Ona*, Juan Mateo Zabalaren *Sermoiak I* (212. orrialdera arte), Douvousinen *Liburu ederra*, Intxausperen *Maria birjinaren hilabetia*. Aguirre Domingoren *Sermoiak* eta Leonen *Jesu-Kristoren imitazioa*.

¹⁷ Bakarrik prosazko zatiak erabili dira azterketan. Kantak eta olerkiak ez dira aztertu.

Liburua eta *Kateximea*-n lekukotuta dago gehienbat. Agerraldiak perpaus nagusietan (pn) (19a-c) nahiz mendeko perpausetan (m) (19d-f) ikus daitezke:

- (19) a. *...agaz eozen guztiak zitezen espantadu eta ezin pensadu eben nogaiti edo nork emaita eben musikao.* (Lazarraga, AL)
- b. *Ekusirik, bada, Silbiagaz eozen arzaiak egoa la negarrez, zitezen espantadu eta ezin pensadu eben zer...* (Lazarraga, AL)
- c. *Ezen baldin Iainkoaren ontasunaz eta gureganako amorioaz segura ezpagaitez, ezin hura egiazki inboka dezakegu.* (Lç, *Kateximea*)
- d. *...baina Iainkoaren Espirituak erran ezin daitezkeen suspirioetara iuzitatzen gaitu.* (Lç, *Kateximea*)
- e. *Ezen haren esentia gure adimenduak ezin konprehen di dezake.* (Lç, *Kateximea*)
- f. *Silbiak bere niri ezin ukatu eidan neure remedioa.* (Lazarraga, AL)

Bestetik, hurrengo adibideek erakusten dute An-Ezin-Alag hurrenkera ere badela, baina ez da perpaus nagusietan aurkitu, mendeko perpausetan baizik. Leizarragaren *Kateximea*-n hainbat adibide aurkitzen ditugu (20a, b) eta Lazarragaren adibide bakarra (20c):

- (20) a. *..., non higi ere ezin baititezke hark permititzen drauen bezenbat baizen.* (Lç, *Kateximea*)
- b. *...baina Iainkoaren Espirituak erran ezin daitezkeen suspirioetara iuzitatzen gaitu,...* (Lç, *Kateximea*)
- c. *...eta ain konsuelo gutxigaz nola inork pensadu ezin leian, zenak arturik biguela bat asi zan kantaetan manera onetan...* (Lazarraga, AL)

Bestetik, *Refranes y Sentencias*-en datuen interpretazioa orain arte atzeratu izan da, izan ere, obra honek ezaugarri bereziak ditu atsotitz bilduma izateagatik. *Refranes y Sentencias*-en bi atsotitzetan aurkitzen da *ezin* partikula eta bakoitza hurrenkera batekin: bat Ezin-An-Lag hurrenkerarekin (21a) eta bestea An-Ezin-ALag-rekin (21b). Aztertu diren XVI. mendeko lekukotasunen artean *Refranes y Sentencias* da perpaus nagusi

batean An-Ezin-Alag ordena duen agerraldi bakarra. Atsotitzen molde bereziarengatik bazter genezake agerraldia, baina pentsa daiteke zenbateraino atsotitz horrek hizkuntzaren garai zaharrago baten arrastoa gorde lezakeen (ikus Lakarra 1996:12):

(21) a. 380. *Ecin eusi dayan orac, ynciria. (RS)*¹⁸

b. 377. *Posako orak eiz onik ezin lei. (RS)*¹⁹

Horrez gain, Ezin-Alag-An adibideak (22a, b) aurkitu dira *Artzain Liburua*-n. Ikerketan adibide hauek ez dira kontuan izan, prosa aztertu delako, baina ezin dira baztertu hurrenkera ezberdin horiek. Agerraldiak olerkietan aurkitu dira eta garaiko hurrenkeraren inguruan informazioa ere dakarte. Ezin-Alag-An prosan erabiltzen ez den arren, XVI mendeko zenbait koplatan eta olerkitan bai behintzat. Prosan edo bestelako testuinguruetan ez da horrelakorik aurkitu:

(22) a. *Silbero бага bizi izaate, oi, ezin eben sufridu; aren azean joateko da lizenzia eskatu. (Lazarraga, AL)*

b. *Enzun dozun pregoeau egienean aditu Doridok eta Silberok bere, oi, ezin eben sufridu. (Lazarraga, AL)*

Azkenik, *ezin* forma indikatiboekin edo ahalerarekin lekukotzen da gehienbat, baina *Kateximea*-ko (23) adibidean subjuntiboarekin elkartutako forma ere aurkitzen da:

(23) *...non Iainkoaren aitzinean gratiarik ezin merezi dezaten?* (Lç, *Kateximea*)

1. taulak XVI. mendeko corpusaren ikerketaren emaitzak erakusten ditu.

Idazlana	Urtea	Ezin-An-Alag (pn)	An-Ezin-Alag (pn)	Ezin-Alag-An (pn)	Ezin-An-Alag (m)	An-Ezin-Alag (m)	Ezin-Alag-An (m)
<i>Kateximea</i>	1571	7 (%29,2)	0 (%0)	0 (%0)	12 (%50)	5 (%20,8)	0 (%0)
<i>RS</i>	1596	0 (%0)	1 (%50)	0 (%0)	1 (%50)	0 (%0)	0 (%0)
<i>AL</i>	1602	9 (%75)	0 (%0)	0 (%0)	2 (%16,7)	1 (%8,3)	0 (%0)
Guztira		16 (%41)	1 (%5,2)	0 (%0)	15 (%38,4)	6 (%15,3)	0 (%0)
1. taula. <i>Ezin</i> -en hurrenkera egitura perifrastikoetan XVI. mendean.							

Datuei begira, esanguratsua da XVI. mendeko testuetan Ezin-An-Alag hurrenkera orokortuta dagoela bai perpaus nagusietan bai mendeko perpausetan nafar-lapurteran eta

¹⁸ Lakarra (1996: 340)-tik hartutako adibidea.

¹⁹ Lakarra (1996: 339)-tik hartuta.

mendebaldeko euskarari. Hala ere, mendebaldeko euskarak esaera zaharren moldean eta ahozkoan An-Ezin-ALag hurrenkera erakusten du perpaus nagusian eta adibide bakarra da.

Bestalde, *Kateximea*-n bakarrik, An-Ezin-Alag hurrenkerak agerpen kopuru esanguratsua du. Beraz, azterketak erakusten du nafar-lapurteran maiz erabiltzen dela hurrenkera hori mendeko perpausetan. Mendeko perpausak ez dute bereizketa berezirik. (24a, b)-n ikus daitekeenez, ez dago bereizketarik hurrenkera baten eta bestearen artean mendeko perpausetan, adibideak erlatiboetako perpausenak dira:

- (24) a. *...berzela ezin adi genetzakeen gauzen aditzera...*(Lç , *Kateximea*)
b. *...baina Iainkoaren Espirituak erran ezin daitezkeen suspirioetara iuzitatzen gaitu...* (Lç , *Kateximea*)

4.2. Ezin XVII. mendean

Hurrengo gizaldian, egoera ez da aldatzen. XVII. mendean Tartasen zubererazko lekukotasuna eta Beriainen nafarrerazko lekukotasuna gehituta, lau euskalkien lekukotasunak daude hurrenkeraren garapena sakonago aztertzeko. Mende honetan, Ezin-An-Alag hurrenkeraren nagusitasunak jarraitzen du bai perpaus nagusietan (25a-c) bai mendeko perpausetan (25e-g). Beriainengan, Axularrengan eta Tartasengan mota bateko zein besteko lekukotasun asko daude, baina Kapaganak Ezin-An-Alag adibide bakarra du perpaus nagusietan (25b) eta bi mendeko perpausetan (25h, i):

- (25) a. *...eta ala ezin erran diteke persona bat dago eskuietako aldean...* (Ber, *Doc*)
b. *Bada eriozea artu bada ezin Iaungoikoak idoro eban beste modu bat?* (Cap)
c. *...beti enzutendut, hantik ezin akaza dirot.* (Tt, *Olsa*)
d. *Gorputza ezin iasan dezakezu, eta alabaiña amuruziaz mintzo zara.* (Ax, *Guero*)
e. *... ezin erremedia ditekeiena.* (Ax, *Guero*)

f. ...*eta badakit eze ezin Eliza sandua engaña ditekela fedesko gauzetan...*,
(Ber, Doc)

g. ... *lektioner hori ezin ikhasten baitigu...* (Tt, Onsa)

h. *Bai iauna zerren obratan ezin ifini giñai iakin bagarik.* (Cap)

i. ... *konfianzea galdu dabenez zerren uste eban, ezin alkanzadu leukeala bere pekatuen parkaziñoa.* (Cap)

An-Ezin-Alag hurrenkera, berriz, *Dotrinea*-n bakarrik aurkitzen da, hau da, mendebaldeko euskaran aurreko mendean bezala. Beste euskalkietako testuetan ez da adibiderik aurkitu. Perpaus nagusian adibide bakarra dago (26a), baina mendeko perpausetan gehiago dira, bereziki mendeko erlatiboetako perpausak lekukotu dira (26b, c) eta kausazko mendeko perpaus bat (26d):

(26) a. *Eta eskusadu ezin leite iakin ezagaiti.* (Cap)

b. *Komodamente barau ezin leitezanak, zarrak, eta gexoak, eta bear egin bear dabeenak.* (Cap)

c. ...*eta duda бага dala irabazte bat galzaiterik edugi ezin leiana...* (Cap)

d. ...*zerren pekatu egin ezin eban...* (Cap)

2. taulak XVII. mendeko corpusaren ikerketaren emaitzak erakusten ditu.

Idazlana	Urtea	Ezin-An-Alag (pn)	An-Ezin-Alag (pn)	Ezin-Alag-An (pn)	Ezin-An-Alag (m)	An-Ezin-Alag (m)	Ezin-Alag-An (m)
<i>Doc</i>	1624	8 (%53,3)	0 (%0)	0 (%0)	7 (%46,7)	0 (%0)	0 (%0)
<i>Guero</i>	1643	33 (%42,3)	0 (%0)	0 (%0)	45 (%57,7)	0 (%0)	0 (%0)
Cap	1656	1 (%9,1)	1 (%9,1)	0 (%0)	2 (%18,2)	7 (%63,6)	0 (%0)
<i>Onsa</i>	1666	11 (%47,8)	0 (%0)	0 (%0)	12 (%52,2)	0 (%0)	0 (%0)
Guztira		53 (%41,7)	1 (%0,8)	0 (%0)	66 (%52)	7 (%5,5)	0 (%0)

2. taula. *Ezin*-en hurrenkera egitura perifrastikoetan XVII. mendean.

Datuei begira, Ezin-An-Alag hurrenkera lekukotasun gehien dituen forma da bereziki nafarreran, nafar-lapurteran eta zubereran, lekukotasun guztien forma baita. Mendebaldeko euskaran, ordea, aurreko hurrenkerak lekukotasun eskasak ditu, bakarrik 3 lekukotasun. Mendebaldeko euskarazko obran gehienbat An-Ezin-Alag forma

erabiltzen da, bai perpaus nagusietan bai mendekoetan. XVI. mendearekin konparatuta, mendebaldeko euskarak bakarrik gorde du gutxien lekukotuta dagoen hurrenkera hori. Aurreko mendean, hurrenkera horretako lekukotasun gehienak nafar-lapurteran aurkitzen dira, baina XVII. mendean dagoeneko nafar-lapurteran desagertu eta mendebaldeko euskarak gordetzen ditu. Mendebaldeko euskararen, gainera, lekukotasun horiek gehiagotu dira.

4.3. Ezin XVIII. mendean

XVIII. mendean egoera aldatzen hasten da. Ezin-An-Alag hurrenkera lekukotuena izan arren, lehenengo aldiz Ezin-Alag-An hurrenkera lekukotzen da, Lizarragaren *Sermoiak* lanean, nafarreran. Testu horretan, Ezin-An-Alag ordena aurkitzen da batez ere, baina Ezin-Alag-An formaren adibide gutxi ere badira²⁰, hain zuzen ere, hiru adibide lekukotu dira. Jarraitzeko, aurreko mendeko joerek aurrera jarraitzen dute. Mogelen *Konfesio Ona*-k mendebaldeko euskararen joera mantendu eta mendeko perpausetan An-Ezin-Alag gordetzen du batez ere. Laburbilduz, lau euskalkietan Ezin-An-Alag hurrenkera nagusia da perpaus nagusietan (27a-d) eta mendeko perpausetan (27e-f), mendebaldeko euskararen izan ezik (27g), adibide bakan batzuk aurkitzen dira:

- (27) a. *Ene semia, ene grazia preziatü düzü, ezin unhesten dizü,...* (Mst)
- b. *Ezin eruan lei absoluzinoerik;* (Mg, CO)
- c. *...orobat eziñ izan daiteke saindu eta Jaiñkoarekin bat-egiña...* (He, Gudu)
- d. *Ta ezin konsolatu nau ontas.* (Le, Serm)
- e. *Altxa nazazü, eta solta kreatüra ororen ezin irañen dian konsolazionetik.* (Mst)
- f. *...zeiñak, eziñ konpli detzakegun botuak egitera, funtsgabeki engaia ahal baitgaitzake.* (He, Gudu)
- g. *Ezin logratu zuelarik ur tanta bat sikiera freskazeko mia...* (Le, Serm)

²⁰ Lizarragaren *Sermoiak* ez dira guztiz aztertu, beraz, ziurrenik lekukotasun gehiago agertuko ziratekeen obra guztia aztertuz gero.

h. *Esango deutsee, nor dan iragarri baga, ezin jarraituko deutseela artu dituban bide ta bizitza onari.* (Mg, CO)

An-Ezin-Alag hurrenkerari dagokionez, lehenago esan den bezala, *Konfesio Ona* liburuan aurkitu dira lekukotasun gehienak, batez ere mendeko perpausetan (28a, b). Hala ere, *Sermoiak* lanean bada lekukotasun bat (28c), lehenengoa nafarreran. Azkenik, Mogelengan perpaus nagusietan ere An-Ezin-Alag hurrenkera lekukotzen da (28d), baina Ezin-An-Alag baino kopuru baxuagoan.

(28) a. *Au da penitenzija osagarri, ta inok kendu ezin leikiona.* (Mg, CO)

b. *...zerren diabrubak ekarri ezin dituzanian pekatubari leku emotera,...* (Mg, CO)

c. *...bekatu mortale bat sekula pagatu ezin daikena aski infernuan...* (Le, Serm)

d. *...ta banaan atera ezin dirianak, aterako dira ekanduz, edo usarijoz,...* (Mg, CO)

Bukatzeko, Ezin-Alag-An Lizarragarengan hiru aldiz eta Mogelengan behin lekukotu da. Gaur egun, ohikoena den hurrenkera hau, XVIII. mendean lekukotzen da lehenengo aldiz, bai nafarreran (29a-c) baita mendebaldeko euskaran ere (29d):

(29) a. *Ezin duke eginen;...* (Le, Serm)

b. *ezpadu bakotxak fiel ta firmeki sinestazen, ezin daike salba.* (Le, Serm)

c. *...ta ez berzea ezin leizke izan Jangoiko.* (Le, Serm)

d. *Ikusirik ezin ebalaz aztu asmo aekaz ,...* (Mg, CO)

3. taulak XVIII. mendeko corpusaren ikerketaren emaitzak erakusten ditu.

Idazlana	Urtea	Ezin-An-Alag (pn)	An-Ezin-Alag (pn)	Ezin-Alag-An (pn)	Ezin-An-Alag (m)	An-Ezin-Alag (m)	Ezin-alag-an (m)
<i>Gudu</i>	1750	10 (35,7%)	0 (%0)	0 (%0)	18 (%64,3)	0 (%0)	0 (%0)
Mst	1757	20 (%33,9)	0 (%0)	0 (%0)	39 (%66,1)	0 (%0)	0 (%0)
<i>Serm</i>	1771	7 (%23,5)	0 (%0)	3 (%17,6)	6 (%35,3)	1 (%5,9)	0 (%0)
<i>CO</i>	1803	20 (%37,7)	3 (%5,7)	0 (%)	8 (%15,1)	21 (%39,6)	1 (%1,9)
Guztira		57 (%36,3)	3 (%1,9)	3 (%1,9)	71(%45,2)	22 (%14)	1 (%0,6)
3.taula. <i>Ezin</i> -en hurrenkera egitura perifrastikoetan XVIII. mendean							

Datuei begira, XVIII. mendean Ezin-An-Alag hurrenkera erabiliena izaten jarraitzen du aztertutako lau euskalkietan. Zubereran eta nafar-lapurteran lekukotasunen ehuneko ehunek hurrenkera hori dute, XVII. mendean bezala. Mendebaldeko euskarak, berriz, Ezin-An-Alag hurrenkera onartzen du beste behin eta aurreko mendean jazotako joera aurrera jarraitzen du mendeko perpausetan hurrenkera erabiliena izaten. Nafarreran, berriz, agerraldi bakarra aurkitzen da. Hala eta guztiz ere, ezaugarri esanguratsuen Ezin-Alag-An hurrenkeraren lehenengo lekukotzea da. Kronologikoki begiratuta, lehenengo aldiz nafarreran lekukotzen da perpaus nagusietan eta, bigarren, mendebaldeko euskararen behin bakarrik eta mendeko perpaus batean.

4.4. *Ezin* XIX. mendean

Aurreko mendeetan ikusi dugun bezala, XIX. mendean ez dago garapen aldaketa harrigarririk. Hasteko, *OEH*-ak²¹ dioen bezala, *ezin* partikularen agerraldiak gutxiago dira. *Ezin* aditz perifrastikoekin gero eta gutxiago elkartzen denez, agerraldi gutxiago aurkitu dira mende honetan. Nafarreran, nafar-lapurteran eta zubereran batez ere, *ezin* aditz jokatuabeekin elkartutako formak ugaritzen dira eta aditz perifrastikoekin erabilitakoak ordezkatzeko dituzte. Adibidez, (30a-d) bezalako formak dira:

- (30) a. *Eta huni ezin aitzakiarik eman, ezin itzur, ezin ihes-egin.* (Dv, LEd)
- b. *...eta badiütü gaintika kalitate ezin aiphatü hoiek galthatzen dütien dohainak.* (Ip, Imit)
- c. *Ezin heltüz izerdi oro hur zen; eta ezinago nekez zebilan.* (Ip, Imit)
- d. *...alde bat ezin kondena kulparik etzuena, berze alde ezin aieki erreka.* (Le, Doc)

Bestalde, Ezin-An-Alag hurrenkerak garrantzi handia izaten jarraitzen du, bai perpaus nagusietan (31a-d) bai mendekoetan (31e-g). Hala ere, Lizarragaren *Dotrina*-n

²¹ *OEH*: En lo que respecta al uso de *ezin* frente a *ez* más forma verbal potencial, parece que en textos de los ss. XVI, XVII y XVIII, *ezin* es más frecuente (excepto en *Dechepare*, en el que predomina *ez*); en el s. XIX, especialmente desde su segunda mitad, hay una tendencia al uso creciente de *ez* en los meridionales, siendo ésta todavía mayor al Norte, donde apenas se encuentra algún autor que use exclusivamente *ezin*, y son relativamente pocos los que utilizan ambas formas. Esta tendencia se mantiene o acentúa en el s. XX.

ez da mendeko perpausik agertzen. Horregatik, (31e-g) adibideetan ez da aurkituko autore honen adibiderik.

- (31) a. *Hemendik ezin har dirozu ez hekien hedadura,...* (Dv, LEd)
- b. *Ezin atrarazi ziote berze itzik tormentu guzieki,...* (Le, Doc)
- c. *Ezin khunta ditake han Maria Birjinak egin dütian graziak eta mirakülliak.* (Ip, Hil)
- d. *...eta orre-gaitik ezin esan giñaike zeinbat laburtuten yakan purgatorioan egon bea-rra,...* (Zav, Serm)
- e. *..., barberek ezin sendo zaitekiala zioen hausküra batetarik.* (Ip, Hil)
- f. *Gizonak su inhar bat eskuan ezin jasan badeza,...* (Dv, LEd)
- g. *..., zabalén zabalez azalak bere ezin artu dituzala,...* (Zav, Serm)

An-Ezin-Alag bakarrik mendebaldeko euskaran jarraitzen du, XVII. eta XVIII. mendeetan. Hurrenkera hori muturreko euskalki horretako zonaldean erabiltzen da (32a-c).

- (32) a. *...ta alkanzadu ezin izan ebeen onra eta anditasuna baño andiagoa opa deu-tsu Yaunak.* (Zav, Serm)
- c. *Negar bagarik esan bere ezin dana* (Zav, Serm)
- d. *...eta euki bere ezin neike.* (Zav, Serm)

Azkenik, aurreko mendean aurkitu ez bezala, Ezin-Alag-An hurrenkera lekukotu da nafar-lapurteran, Duvoisinen *Liburu Ederra*-n (33a). Horrez gain, beste hiru lekukotasun aurkitu dira Lizarragaren *Dotrina*-n (33b,c). Hona hemen adibide batzuk:

- (33) a. *.... eta etsaia izan banintz, gogorkiago ezin jazarriko zinarotan; gehiago ezin zindukeen egin.* (Dv, LEd)
- b. *...guzis ezin daikena konprehendi gure entendamentu eskas ebeki,....* (Le, Doc)

c. ..., ezin lezakela soporta gure bista naturalak, ... (Le, Doc)

4. taulak XIX. mendeko corpusaren ikerketaren emaitzak erakusten ditu.

Idazlana	Urtea	Ezin-An-Alag (pn)	An-Ezin-Alag (pn)	Ezin-Alag-An (pn)	Ezin-An-Alag (m)	An-Ezin-Alag (m)	Ezin-Alag-An (m)
<i>Doc-1</i>	1821	3 (%50)	0 (%0)	0 (%0)	0 (%0)	0 (%0)	3 (%50)
<i>Serm I</i>	1833	35 (%59,3)	2 (%3,4)	0 (%0)	19 (%32,2)	6 (%10,2)	0 (%0)
<i>LEd</i>	1856	8 (%57,1)	0 (%0)	1 (%7,1)	5 (%35,7)	0 (%0)	0 (%0)
<i>Hil</i>	1894	1 (%33,3)	0 (%0)	0 (%0)	2 (%66,6)	0 (%0)	0 (%0)
Guztira		47 (%55,3)	2 (%2,3)	1 (%1,2)	26 (%30,6)	6 (%7,0)	3 (%3,5)
4. taula. <i>Ezin</i> -en hurrenkera egitura perifrastikoetan XIX. mendean							

Datuei dagokienez, interpretatzen hasi baino lehen, agerraldien gutxitzeari erreparatu behar diogu. Mende honetan, erlijio prosazko testu gutxiago egoteaz gain, *ezin* forma aditz jokatu gabeekin elkartzeko joera handitu eta ezintasuna adierazteko *ez* forma ugaritu dela jazozen da, *ezin* forma aditz perifrastikoekin sortutako elkarketak murriztuz.

Azterketarekin hasteko, aurreko mendeetako joera mantentzen da: Ezin-An-Alag forma zabalduea da eta euskalki guztietan lekukotzen da, baina kopuru ezberdinetan. Bestetik, mendebaldeko euskarak An-Ezin-Alag formaren gotorlekua izaten jarraitzen du, aurreko mendearekin konparatuta, askoz gutxiago, batez ere mendeko perpausetan. Adierazi den bezala, XVII. mendean *Konfesio Ona* lanean perpausen %21ak hurrenkera hori dauka. Orain, berriz, kasuen %2an agertzen da hurrenkera hori mendeko perpausetan.

Bukatzeko, nafar-lapurteran Ezin-An-Alag ordena ugariena da, baina aurreko mendean bezala, Lizarragagan Ezin-Alag-An berriz lekukotzen da, mendeko perpausetan. Horrez gain, aurreko mendea ez bezala, mendebaldeko euskararen ez da horrelako hurrenkerarik lekukotzen. Nafar-lapurteran, berriz, lehenengo aldiz Ezin-Alag-An hurrenkera lekukotzen da.

4.5. *Ezin* XX. mendean

XX. mendean aldaketa esanguratsuenak gertatzen dira. Mendebaldeko euskararen aldaketa bortitza gertatzen da eta aurreko mende guztietan orokortuta zegoen hurrenkera

batetik bat-batean Ezin-Alag-An hurrenkerara aldatzen da guztiz. Datuak aurreko mendearekin konparatuz, argi erakusten dute XIX. mendean salbuespena zen Ezin-Alag-An hurrenkera, mende honetan hurrenkera erabiliena bihurtzen dela (34a, b), beste bi hurrenkerak salbuespentzat utziz (34c-e).

- (34) a. *ezin leike bururik jaso Jaungoikuaren amaren aurrian.* (Ag, Serm)
- b. ...; *baña ezingo dot itxi esanbaga,...* (Ag, Serm)
- c. ...*gizonak asmau ezin leikezanak,...* (Ag, Serm)
- d. ...*gizonak ezin esan leikiana da bere sari ta glorija zerue-tan.* (Ag, Serm)
- e. ...*baña ezin utzi nezake galdetu gabe iya gukere erdibitzen degun gure jantziya Jesu Kristorekin;...* (Ag, Serm)

Nafar-lapurteran, ordea, lagina txikia izanda ere, argi erakusten du hurrenkerak bere horretan jarraitzen duela hein handi batean (35a, b). Hala ere, Ezin-Alag-An lekukotasun gutxi batzuk aurkitu dira (35c, d).

- (35) a. *O ezin ikus zitzazkegun Kreatedalea, zoin den miresgarria guretzat egiten duzuna!* (Leon, Imit)
- b. *Gure ala bertzeen baitan ezin zuzent ditzazkegunak,* (Leon, Imit)
- c. ...*jendeen maltzurkeriak kalte izpirik ezin dezoke egin.* (Leon, Imit)
- d. *Mundu huntan gireno, atsegaberik eta gudurik gabe ezin gitazke izan.* (Leon, Imit)

5. taulak XX. mendeko corpusaren ikerketaren emaitzak erakusten ditu.

Idazlana	Urtea	Ezin-An-Alag (pn)	An-Ezin-Alag (pn)	Ezin-Alag-An (pn)	Ezin-An-Alag (m)	An-Ezin-Alag (m)	Ezin-Alag-An (m)
<i>Serm</i>	1916	9 (%6,8)	1 (%0,75)	58 (%43,9)	20 (%15,1)	16 (%12,1)	28(%21,2)
<i>Imit</i>	1929	0 (%0)	0 (%0)	2 (%20)	8 (%80)	0 (%0)	0 (%0)
Guztira		9 (%6,3)	1 (%0,7)	60 (%42,2)	28 (%19,7)	16 (%11,2)	28(%19,7)
5. taula. <i>Ezin</i> -en hurrenkera egitura perifrastikoetan XX. mendean							


Datuei begira, lehen komentatu den aldaketa argi ikusten da ehunekoetan. Mendebaldeko euskaran Ezin-Alag-An hurrenkerak bai perpaus nagusian bai mendeko perpausetan ehuneko kopuru handiak ditu. Aurreko mendeko emaitzekin alderatuz, bat-bateko hazkundera gertatzen da eta XVII. mendeko agerraldi bakar hori, *ezin* forma guztien %65,3ra iristen da. Batez ere perpaus nagusietan lekukotzen da aldaketarik handiena (%43,9).

Nafar-lapurterari dagokionez, XIX. mendeko lekukotasunak ez dira salbuespenak eta berriz mende honetan Ezin-Alag-An hurrenkera lekukotzen da perpaus nagusietan. Obra honetan perpaus nagusian lekukotasun bakarra dagoenez, ezin da ondorio gehiago atera, bakarrik aurreko mendeko joera mantentzen dela. Ezin-An-Alag hurrenkera, ordea, erabiliena da, mendeko perpaus guztietan aurkitzen diren lekukotasunek ordena hori baitute.

4.6. Azterketa euskalkika

4.6.1. Mendebaldeko euskara

Mendebaldeko euskarak garapen irregularra izan du *ezin*-en hurrenkeran 1. grafikoan antzeman daitekeen bezala.



1. grafikoa. *Ezin* hurrenkeraren garapena mendebaldeko euskaran

Hasteko, XVI. mendean Ezin-An-Alag hurrenkera orokortuta zegoen *Artzain Liburua*-n ikusi den bezala²². Tradizioz, hurrenkera hau zonalde guztietan zabalduena izan da, baina XVII. mendean 1. grafikoan ikus daitekeen moduan, mende baten ostean Kapanagak An-Ezin-Alag formaren alde egiten du nabarmen. Ondoren, XVIII. mendean bien erabilera parekatzen da. Hurrengo mendean, berriz, hasierako hurrenkera nagusitzen da, baina XVI. mendeko zenbakietara heldu gabe. Bukatzeko, XIX. mendean Ezin-An-Alag nagusitzen da, aldaketa horren arrazoiak argiak ez direla.


Hortaz, mendebaldeko euskaran aldaketa XVI. mendearen eta XVIII. mendearen artean azalpenik gabeko hurrenkera aldaketak gertatzen dira. Lan honetan aldaketa horren jatorririk ez da aurkitu. Hurrenkera aldaketa beste euskalkiekin konparatuta aski bitxia den egoera da, baina ez dago datu nahikorik ondorio zehatz batera heltzeko. Azkenik, XVIII. Ezin-Alag-An hurrenkera lehenengo aldiz lekukotzen da, baina berriz arrazoirik gabe XIX. menderako desagertzen da eta bat-batean XX. mendean Ezin-Alag-An hurrenkeraren hedatze bortitza gertatzen da, beste bi hurrenkerak ia desagertzera arte gutxituz. Gainera, Ezin-An-Alag eta An-Ezin-Alag perpaus nagusietatik ia desagertzen dira. Hala ere, mendeko perpausetan gorde eta Ezin-Alag-An hurrenkerarekin nahiko pareko mantentzen dira.

OEH-k aipatzen duenez²³, Ezin-Alag-An hurrenkera XIX. mendeko testuetan erabilpena handitzen hasten da, batez ere mendebaldeko euskaran. Datuetan oinarrituz, ordea, XIX. mendean Juan Mateo Zabalaren *Sermoiak* obran behintzat ez da horrelako formarik lekukotzen. Lehenengo lekukotasuna *Konfesio Ona* lanean aurkitzen da XVIII. mendean. Hurrengo mendean, esan bezala, ez dago lekukotasunik eta bat-batean XX. mendean Ezin-Alag-An forma orokortzen da mendebaldeko euskaran. Aldaketa bortitz honen inguruan, *OEH*-ak ez du informaziorik, baina ondorioztatu daiteke hizkera literarioaren garapenarekin eta hedabideen garapenarekin batera Ezin-Alag-An hurrenkera zabaltzeko zela mendebaldeko euskaran. Izan ere, aurreko mendeetan ez da horrelako baldintzarik jazotzen eta beste hurrenkerak ez dute horrelako aldaketa sakonik pairatzen. XVI. mendearen eta XVIII. mendeen artean Ezin-An-Alag hurrenkerak ez du hain aldaketa sakonik.

²² 1. grafikoan XVI. mendean ez da *RS* kontuan izan, lehenik eta behin lekukotasunak esaera zaharrak direlako eta bestetik bi lekukotasun bakarrik direlako.

²³ *OEH*: ...es la construcción habitual en BBizk, no ocurre así en la mayoría de los textos antiguos; en el s. XVIII sigue siendo bastante poco usual, pero su utilización va aumentando considerablemente desde principios del s. XIX.

Bestalde, zeharka ikusi izan den moduan, mendeko perpausek ere zer esana dute mendebaldeko euskarari. Horretarako 2. grafikoa aurkezten da.




2. grafikoa. *Ezin-An-Alag* eta *An-Ezin-Alag* hurrenkeraren garapena mendeko perpausetan.

2. grafikoa XVI. mendetik XIX. mendera mendeko perpausek bi hurrenkera zaharrenek (*Ezin-An-Alag* eta *An-Ezin-Alag*) izan duten garapena erakusten da. Lehenik eta behin, aurretik ikusi den moduan XVI. mendean *Ezin-An-Alag*-ren nagusitasuna mendeko perpausetan ere gertatzen da. Bigarrenez, XVII. mendean bai *Ezin-An-Alag* bai *An-Ezin-Alag*-en datuak parekatzen dira. Hirugarrenez, XVIII. mendean aldaketa horretan *An-Ezin-Alag* hurrenkeraren lekukotasunak handitzen dira. Azkenik, XIX. mendean, harrigarria bada ere, datuak XVI. mendeko mailara bueltatzen dira, non *Ezin-An-Alag* hurrenkera mendeko perpaus gehienetan (%70tik gora) aurkitzen den.

2. grafikoa ez dira XX. mendeko datuak erakusten, mende horretan dagoeneko *Ezin-Alag-An* hurrenkera agertu delako, baina 5. taulari begiratu, *Ezin-An-Alag*-ek %15,1 eta *An-Ezin-Alag*-ek %12,1 dute mendeko perpausetan. Beraz, hurrenkera berriaren agerpenarekin beste behin parekatzen dira mendeko perpauseko zenbakiak.

4.6.2. Nafar-lapurtera

3. grafikoa nafar-lapurteran *ezin* formaren garapena irudikatzen du.




3. grafikoa. *Ezin* hurrenkeraren garapena nafar-lapurteran

3. grafikoa ikus daitekeen bezala, alde batetik XVI. mendean aurkitzen da hurrenkera aldakortasun bat eta, bestetik, XIX. mendean ere beste mota bateko aldaketa. Lehenengo mende horretan *Kateximea*-n An-Ezin-Alag formaren adibide bakan batzuk aurkitzen ditugu. Agerraldi guztien %20,8ak hurrenkera horretakoak dira eta guztiak mendeko perpausak dira. Datu horrekin esan genezake mendeko perpausetan aurkitzen den hurrenkera mendebaldeko hizkeran aurkitzen den berdina dela. Bestalde, nafar-lapurtera zubereraren antzera, ez du *ezin*-ek hurrenkeran aldakortasunik pairatu XVII. mendetik XIX. mendera arte. XIX. eta XX. mendetik aurrera Ezin-Alag-An hurrenkera lekukotzen hasten da.

4.6.3. Nafarrera

Nafarreran *ezin*-en hurrenkeraren garapena 4. grafikoa irudikatzen du.




4. grafikoa. *Ezin* hurrenkeraren garapena nafarreran

4. grafikoari begira, nafarrerak ez du aldaketa sakonik pairatu. Ez da XX. mendeko eta XVI. mendeko testurik aztertu. Hala ere, nafarreran mendebaldeko euskaran ez bezala, ez da egoera aldakorra aurkitzen. XVII. mendean ez dago hurrenkera aldakortasunik Ezin-An-Alag erabiltzen den hurrenkera bakarra da. XVIII. mendean Ezin-Alag-An-en lehenengo agerraldiak Lizarragaren *Sermoiak* lanean aurkitu dira. Bertan, nahiz eta kopuru oso txikian izan, hurrenkera aldaketa argi ikusten da grafikoan. Mende horretan, proportzio oso txikian perpaus nagusietan nafarreran lehenengo aldiz hurrenkera berriaren lekukotasunak daude. Horrez gain, An-Ezin-Alag bakarra aurkitzen da. XX. mendean ez dago agerraldi asko, baina daudenek Ezin-An-Alag-ren nagusitasuna erakusten dute, nahiz eta Ezin-Alag-An mantentzen den agerraldi batekin. Zoritxarrez, nafarrerazko XX. mendeko testu esanguratsurik ez da aurkitu hurrenkeraren garapena argiago ikusi ahal izateko.

4.6.4. Zuberera

5. grafikoak zubereran *ezin* formaren garapena irudikatzen du.



5. grafikoa. *Ezin* hurrenkeraren garapena zubereran

Zubererak ez du aldaketarik pairatu *ezin*-en hurrenkeran. 5. grafikoak erakusten duen moduan, erlijio prosan zubererak forma berbera Ezin-An-Alag erabiltzen du, bai perpaus nagusietan bai mendeko perpausetan. Aurreko hizkeretan ez bezala, muturreko hizkera izatearen egoerak lagundu dio hurrenkera aldaketak ekiditen. Hala ere, §3.1 atalean azaldu bezala, *ez* partikulak *ezin*-en testuinguru perifrastikoak ordezkatu ditu, eta, beraz, XX. mendean ikusteke dago hurrenkera aldaketarik suertatzen den, batez ere, euskara batuaren eraginak aldaketarik suertatu ote duen.

5. Ezeztapenarekin harremanetan

5.1. Oinarriak

Ezin partikulak eta ezeztapeneko *ez* partikulak harreman estua dute. §2.1 atalean azaldu den moduan, bi formak ezintasuna adierazteko erabil daitezke (1a, b). Horrez gain, *ezin*-ek ezeztapenarekin ezaugarri komunak ditu: biek aditzarekin bat egiten dute, aditz sintagmaren barruan kokatzen dira, biek semantikoki ezeztapena adierazten dute eta aditz jokatu gabeekin zein aditz perifrastikoekin elkartzeko aukera dute. Azkeneko ezaugarri hau da Iker Salaberrik (2018) artikuluan aztertu duena.

Salaberrik (2018) XVI. mendetik XX. mendera ezeztapenaren hurrenkera aditz perifrastikoetan aztertu zuen 5 euskalkitan: mendebaldeko euskara, erdialdeko euskara, nafarrera, nafar-lapurteran eta zubereran. Euskal tradizioan ezeztapenean perpaus nagusietan zein mendekoetan bi konbinazio posible zirela adierazi zuen: Ezeztapena-Aditz nagusi-Aditz laguntzaile eta Aditz nagusi-Ezeztapena-Aditz laguntzaile.

Ezeztapenaren hurrenkera horiei dagokienez, ezeztapenaren Ez-Alag-An hurrenkerak eta De Rijk-ek (1969) adierazitako *Auxiliary Movement*²⁴ fenomenoak mendebaldeko euskaran²⁵ XX. mendean hasitako Ezin-Alag-An hurrenkerarekin zerikusia duten aztertuko da. Beraz, atal honetan bi hurrenkera horien arteko harremana bilatuko da eta harremanaren inguruko kontuen hurbilketa bat egingo da.

5.2. Ezin-Alag-An-ren inguruko hurbilketa

Hasteko, perpaus nagusietan ezeztapena txertatzerakoan gaur egun nahitaezkoa da *Auxiliary Movement* delakoa. Mugimendu hau ezinbestekoa da ezeztapena duen perpaus gramatikala osatzeko (36a). Bestela, adibide ez-gramatikala sortuko da (36b).

(36) a. *Ez da etorri*

b. **Ez etorri da*

Ezin partikula gaur egun antzeko egoera batean dago. Datuetan oinarrituta, §4.6. atalean aztertu den bezala, mendebaldeko euskaran XIX. eta XX. mendeetan zehar hurrenkera aldaketa gertatu da, Ezin-An-Alag edo An-Ezin-Alag batetik (37a, b) Ezin-Alag-An batera (37c):

(37) a. *...ze sarri esaten oi dozu: ai ze kolorea daukan, ezin itxi leikio.* (Zav, *Serm*)

b. *...ta ganeko gauza guztiak izango dira zure kontra; ukatu ezin zinaikezan testiguak dira.* (Zav, *Serm*)

²⁴ De Rijk-ek (1969) horrela izendatu zuen aditz laguntzailea aditz nagusiarekin lekualdatzea.

²⁵ De Rijk-ek (1969: 331) dio euskarazko sakoneko egiturak adierazpen perpausetan Aditz nagusi- Aditz laguntzaile hurrenkera duela eta ezeztapenak *Auxiliary Movement* eragiten du Aditz laguntzaile-Aditz nagusi hurrenkera sortuz.

c. ...ainbeste gogo sutsu neurrigabekorekiñ betea, ezin leiteke bizi maitetu gabe ta maitetua izan gabe. (Ag, Serm)

Aldaketa horiek Agirreren *Sermoiak* lanetik ateratako adibideek erakusten dituzte. *Sermoietan* Ezin-Alag-An hurrenkera ehuneko altuan lekukotzen da, perpaus nagusietan batez ere. *Ez* partikulari dagokionez, Salaberrik (2018) adierazitako bi konbinazioak ere agertzen dira, baina Ez-Alag-An hurrenkera ugariena da. *Ezin* hurrenkerari dagokionez, Agirrek hiru hurrenkera posibleak erakusten ditu (38a-c) eta *ez* partikulari dagokionez, Salaberrik aztertutako beste biak (38d, e):

- (38) a. ...ezin leike bururik jaso Jaungoikuaren amaren aurrian... (Ag, *Sermoiak*)
- b. ...gizonak ezin esan leikiana da. (Ag, *Sermoiak*)
- c. Jesus izan zala aingeru guzien gordelaria;baña ukatu ezin lezake. (Ag, *Sermoiak*)
- d. Eztozu entzungo geijago munduko aixiaren durundirik. (Ag, *Sermoiak*)
- e. Bere aita Zakarias eguan mutututa bederatzi illabetian ziñistu ez ebalako zeruko aingeruak agertu eutzanian bere semiaren sorreria. (Ag, *Sermoiak*)

Horrela, mendebaldeko euskaran XX. mendean pentsa daiteke Ezin-Alag-An nagusitu dela Ez-Alag-An hurrenkeraren eraginarengatik, behintzat Ez-Alag-An hurrenkeraren nagusitasunak eraginda. Beraz, gerta daiteke Salaberrik (2018) XVI. mendetik lekukotzen duen Ez-Alag-An hurrenkera *ezin* hurrenkeraren bilakaerarekin zerikusia izatea, hau da, *ezin* hurrenkeraren aldaketaren sorrera *ez* hurrenkerari egotz dakiokela.

Ezin-Alag-An formak perpaus nagusietan lekukotzen dira eta mendeko perpausetan, berriz, beste bi hurrenkerekin lehian dago, mendeko perpausak gordetzailleagoak direlako. Dena dela, hurbilpen honen inguruko zehaztasunak beste lan batean aztertu beharko lirатеke, lan honetan ezin izan delako urrutirago joan.

6. Ondorioak

Laburbilduz, lan hau *OEH*-ak *ezin*-en inguruan adierazitakoa zehazten saiatu da, hurrenkera eta euskalki desberdinen aztarnak aztertuz historian zehar eta gaiaren inguruko autore desberdinen teoriak kontuan hartuz.

OEH-ak Ezin-Alag-An hurrenkeraren lehenengo lekukotasunak XVI. mendean kokatzen ditu, baina lekukotasunak *metri causa*-ren eraginez sortuak direla ondorioztatu da. Prosan, erlijio prosan zehatzago esanda, hurrenkera horren lehenengo lekukotasunak XVIII. mendera arte atzeratu behar dira, lekukotasun horiek Lizarragaren *Sermoiak* lanean aurkitu baitira lehenengo aldiz. Gainera, lehenengo lekukotasun horiek perpaus nagusietan aurkitu dira.

Hizkera ezberdinei dagokienez, mendebaldeko hizkeren eta ekialdeko hizkeren hurrenkeraren ezberdintasunak agerian utzi dira. Ekialdeko hizkerek hurrenkera finkoa erakusten duten bitartean, mendebaldeko hizkerek, nafarrera barne, aldakortasun handiagoa erakusten dute. Alabaina, XX. mendeko nafarrerako testu egokirik ez dugu aurkitu eta ezin izan da garapen horren aldeko argudiorik eman.

Gainera, *OEH*-ak dioen bezala, mendebaldeko hizkeren eta ekialdeko hizkeren arteko aldea nabaria da hurrenkeren inguruan, mendebaldeko euskarak *ezin*-en alde egiten duen bitartean, ekialdeko hizkeretan ezintasuna *ez* partikularen bidez egiten da XIX. eta XX. mendeetan.

Horrez gain, 5. atalean ezeztapena eta *ezin*-en hurrenkera harremanetan jarri dira. Bien ordena Ezin-Alag-An eta Ez-Alag-An erkatu dira etorkizuneko ikerketa izan daitekeen gaiaren inguruan hurbilketa bat eginez, baina kasu honetan ere ezin izan da ondorio zehatzik atera.

Azkenik, azterketa osatzeko, alde batetik, ahozko hizkuntza ikerketara gehitu eta datuak osotasunean aztertu beharko liratekeela aipatu behar da. Bestetik, testu gehiago aztertuz gero, *ezin* hurrenkeraren inguruko ondorio zehatzagoetara heltzeko bidea irekiko litzateke. Etorkizun bateko ikerketa *ezin* eta *ez* partikulen konparaketan oinarritu ahalko litzateke, hauen arteko harremana hobeto argitzeko.

Laburdurak

Alag-Ezin-An: Aditz laguntzailea-Ezin-Aditz nagusia

An-Ez-Alag: Aditz Nagusia-Ez-Aditz laguntzailea

An-Ezin-lag: Aditz nagusia-Ezin-Aditz laguntzailea

EBE: Euskara Batuaren Eskuliburua

EGL: Euskal Gramatika Laburra

EGO: Euskal Gramatika Osoa

Ez-Alag-An: Ez-Aditz laguntzailea-Aditz nagusia

Ezin-Alag-An: Ezin-Aditz laguntzailea-Aditz nagusia

OEH: Orotariko Euskal Hiztegia

Bibliografia

Alberdi, A., Mujika, A., Sagarna, A., Urkia, M., González de Viñaspre, R., Oñederra, M. (2018). *Euskara batuaren eskuliburua (ebe): A-tik z-ra, zalantzak eta argibideak*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Azkue, R. M. (1925). *Morfología Vasca*. Bilbo: Euskaltzaindia

De Rijk, R. P. & De Coene, A. (2008). *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge: MIT Press.

De Rijk, R. P. (1969). Is Basque an SOV language?. *Fontes Linguae Vasconum* 3, 319-352.

Eguzkitza, A. (1991). Partikula modalez ohar pare bat. *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo* 25 (3), 961-963.

Euskaltzaindia (1987-2005). *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Euskaltzaindia (1999). *Euskal Gramatika. Lehen urratsak V (Mendeko perpausak-1)*. Iruñea: Euskaltzaindia.

- Euskaltzaindia (2002). *Euskal gramatika laburra: Perpaus bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Hualde, J. I. & Ortiz de Urbina, J. (2003). *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Laka, I. (1991). Sentence negation in Basque. *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*. 899-926.
- Lakarra, J. A. (Arg.) (1996). *Refranes y Sentencias (1596): Ikerketak eta edizioa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lardizabal, F. (2006). *Gramática vascongada*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. “Rodríguez Ranz, J.-en berragitalpena.”.
- Salaberri Izco, I. (2018). Ezeztapenaren hurrenkera euskal egitura perifrastikoetan: hurbilpen diakroniko-tipologikoa. *Fontes Linguae Vasconum* 125, 55-83.
- Sarasola, I. (1971). *Euskal literaturaren historia*. Donostia: Lur.
- Zubiri, I. & Zubiri, E. (1995). *Euskal gramatika osoa*. Bilbo: Didaktiker.

Webgrafia

<http://www.lazarraga.com/>

<http://www.euskaltzaindia.eus>

<https://klasikoak.armiarma.eus/>

<http://www.ehu.eus/ehg/kc/>